

## Lamina haur beharretan

Kattalin Sallaberry-k kontatua

Nire amaren amatxi emagina zen Ahatxan. Gau batez, gaua untsa aintzinatua zen lamina bat haren xeka jin zelarik erranez bere emaztea haur ukaiten lagundu behar zuela. Ene birramatxi xifritua zen eta bere senarrari galdegin zion zer egin behar zuen bainan honek ere ez zekien zer pentsa. Laminak lasaitu zuen eta ixtaklok harturik, bera ohartu gabe ere, errekaraino ereman zuen.

Ura pasarazi zion, den mendrena busti gabe. Sekulan santan ordu arte ikusi ez zuen ganbera dirdiratsuenan sarrarazi zuen. Dena harri pikatuz egina zen.

Ene birramatxik bere lana egin zuen eta ninia untsa troxatu ondoan sehaskan pausatu zuen.

Jaki eta edari hautak eman zizkieten eta gainera pagamenduz diru kopuru ederra. Bainan galdegin zioten ez zezan barne hartarik fitsik atera.

Bizkitartean ez baitzuen sekulan holako ogi ederrik ikusi, bere etxekoei erakutsi behar ziela, mikoño bat sakelan sartu zuen.

Ene birramatxi erreka bazterrerraino iritsi zelarik laminarekin, honek erran zion ez zuela ura pasarazten ahal bere etxeko zerbait hartua zuelako.

Aitortu zuen baietz, ogi mikoño bat sakelan hartua zuela etxekoek ikus zezaten zoin ogitik jana zuen. Laminak galdegin zion urera bota zezan eta gero, beste aldera ereman zuen etxeko korraleraino, jitean bezala zangoak busti gabe.

Lurrean pausatu zuelarik, ene birramatxik burua itzuli zuen eta laminak kanit ukaldi batez begia errotik kendu zion, nahiz eta debekatua izan ohointzan ari izan bautzen.